

PROGRAMA: GAZTEEN LANERATZEA SUSTATZEKO PROGRAMA LAN-ORIENTAZIOA, LAN-AKTIBAZIOA, TALDE PRESTAKUNTZA, BITARTEKOTZA ETA LANERATZEA

Helburua	Laguntzen helburua da 30 urte arteko gazte langabeak lan-merkatura sartzea, orientaziorako, aktibaziorako, prestakuntzarako eta bitartekaritzarako ibilbide baten bidez, gazte horiek laneratu daitezen.
Erakunde onuradunak	Bizkaiko Lurralde Historikoko udalak.
	Udal izaerako enplegu eta tokiko garapenerako zentroak, edo erakunde autonomiadunak, enpresa publikoak edo haien mendeko edo haiekin lotutako bestelako erakundeak.
	Fundazioak, elkarteak eta irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuk.
	Laneratzearen arloan hiru urteko esperientzia minimoa dutela egiaztatu behar dute.
Diruz lagundu daitekeen egitatea	Lan-merkatuan laneratzeko ibilbide bat egitea.
Diru-laguntza jaso dezakeen jardueraren edukia	<ul style="list-style-type: none">Lan-orientazioa: banakakoa, gutxienez 5 ordu eta gehienez 15 ordu parte-hartzaile bakoitzeko.Lan-aktibazioa: taldekoa, gutxienez 5 ordu eta gehienez 20 ordu ibilbide bakoitzeko.Lan-bitartekaritza: banakakoa, gehienez 10 ordu parte-hartzaile bakoitzeko.Prestakuntza: taldekoa, 8-20 pertsona prestakuntza-jarduera bakoitzeko. Prestakuntzak prestakuntza-ekintza hauek izan ditzake:<ol style="list-style-type: none">Oinarrizko konpetentzia digitalak (aukerakoa): 20-60 ordu.Prestakuntza teknikoa: 60-600 ordu.Prestakuntza berdintasunean: gutxienez 7 ordu.Laneratzea: gutxienez laneratze-ibilbidean parte hartu duten pertsonen % 15
Diru-laguntzaren zenbatekoa	Erakunde eskatzaile bakoitzeko: 120.000,00 euro.
	Ibilbide bakoitzerako muga : 90.000,00 euro.
	Laugarren laneratzea: 3.000 euro; laneratze gehigarria: 3.000. Laneratzeengatiko laguntzaren muga: 9.000 euro.
Araudia	Bizkaiko Foru Aldundiaren 207/2023 Foru dekretua, abenduaren 21ekoa (BAO, 5. zbkia, 2024ko urtarrilaren 8koa), Bizkaiko Lurralde Historikoko laneratzeko Lan Berri Programaren 2024ko ekitaldiko dirulaguntzen oinarriak eta deialdia ezartzen dituena. Dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagoka araubidearen bidez izango da.
Epeak	Ekintzak egiteko epeak: 2024ko irailaren 1etik 2025ko urriaren 31ra
	Eskabideak aurkezteko epea eta era: Eskabideak aurkezteko epea 2024ko urtarrilaren 29ko 9:00etan hasi eta 2024ko otsailaren 29ko 13:30ean amaituko da. Eskabideak Internet bidez aurkeztu beharko dira, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren bulego birtuala erabiliz. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikora sartu behar da (www.ebizkaia.eus), eta bertan Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko sailaren bulego birtuala aukeratu.